

# ANTZERKIA

---

## TRAPUJALE HERRI ANTZERKIA

### ANTZINSOLASA

Antzezlan hau herritik sortutako Trapujaleren kondairan dago oinarriturik. Honen ize-  
nez argitaratu zen komikia du abiapuntu eta hortik aurrerakoa imajinazioaren emaitza  
besterik ez da.

Sorteritik urrun dabilenak maiz izaten du honen beharra eta are maizago gogoratzen  
han bizitua. Antzezlan honek, azken batean, horixe izan du zirikatzaile, herrimina.  
Aspaldi utzitako herri baten gainean gogoeta egiteko aski aproposa izan da, bere bizimo-  
dua eta hizkera, zoko-bazterrak eta istorioak memoriaren bazterrik ezkutuenetik atera eta  
paperean jarri ditut.

Antzezlan labur eta erraz honek helburu bakarra du: herriak sortutakoa herriari itzul-  
tzea bere magalean gorde dezan, herriarengan bait dago urte luzeetako bizipenak gogo-  
an gordetzeko betebeharra, lehena izan dadin geroaren bide erakusle.

Alessandria, 1993ko otsailak 18, Ostegunzuri.

## AURKEZPENA

### I

*Itsasoaren aurrean irmoki ageri dira Jaizkibel mendiaren malkarrak, inon diren malkarik madarikatuenak; Sumilondoko haitzak, zaharrak eta gogorrak bezain zigortuak, hamaika itsas ekaitz beltz ikusiak. Auskalo zenbat itsasontzi irentsi dituen itsasoak Sumilondoko haitzen begien aurrean, auskalo zenbat puzkar bota dizkien MARINAZKANE sorginak. Inon den sorginik itsusiena eta zakarrena; MARINAZKANE sorgina. Gaur ere itsasoari begira dago, zuzen-zuzen begira, uhin apartsu eta kaioez gain besterik ikusiko bailuen. Beha-beha, hatzaz karobia diruditen sudurzuloak zirikatzen dituen bitartean, kontzentrazio sakonenerako bide moduan.*

*Halako batean, hatza sudurzulotik atera, itsatsi zaizkion mukiak amantalean garbitu eta zutik, itsasoari begira, esan du orroez zakar batez:*

MARINAZKANE

Ekaitz beltza zetorrek Munttar!!!

MUNTTAR. (MUNTTAR, MARINAZKANE sorginaren ziriku nagusia da, beste sei zirikuen buru: IXKU, ALLER, SUMI, TIÑEL, SATS eta LET. MARINAZKANERen orroak lotaldi goxo batetik bapatean esnatu du).

Zer dion, neska?

MARINAZKANE. (Serio-serio)

Ekaitz beltza zetorrek eta hobe izango duk artzayak jakiñan gañian jartzia, tiraba! Deitzik zirikuak eta eman dezatela orren berri lenballen.

MUNTTAR. (Lastozko kapela ondo jazten duen bitartean)

Bai neska, oantxe bertan! (Oihuka). Ixku! Aller! Sumi! Tiñel! Sats! Let! Torri seittuan!

*Haragoko haitz baten atzetik TIÑEL agertu da, kaka egiten amaiturik galtzak lotzen dituen bitartean. ALLER eta SUMI otadi baten atzetik agertu dira, maitaketa lanak ustegabeen utzi eta MUNTTARren deiari erantzunaz. TIÑEL, SATS eta LET kartaketan ari ziren haruntzago MUNTTARrek deitu dituenen. Bildu dira seiak MUNTTARren inguruan, MARINAZKANE itsasoari so.*

MUNTTAR

Marinazkanek ekaitz aundiya datorrela esan du eta artzayak jakiñan gañian jarri biarttugu, bakizute, bestela aurten eztugula sariyik jasoko urteroko moduan, Korri!!

(Sei ZIRIKUAK antzeztokiko leku ezberdiñetatik desagertu dira korrika).

OIHALA ZABALDU

## II

Zelai batean ARTZAI bat otarteko eder bat jaten ari da, noizean behin zahatoari tragoxka egiten dio. ALLER zirikua estu eta larri agertzen zaio, korrika etorri da, arnastuka.

ALLER

Oi duk oi bizitzia Joxe, nik badit pa iri esan biarreko kontu larri bat.

JOXE

Bota ba bota biarrekua lenballen ta utzi otordua itten.

ALLER

Tragoxka ingo nitek ardo goxuortatik (*zahatoari beha-beha, eskuak elkar igurtziz*), eerra eon biar dik!

JOXE

Zuek beti eskian, ezaltzute neikua urtero emandakuakin? (*Barrabilak hazkatuz*). Tira, tira, iantzak tragua ta esan esanbierrekua.

ALLER. (*Gogotik edan du ALLERRrek, zahatoa hustu du*).

Eerra!

JOXE

Netzak ez al duk bate utzi biar nazkagarriyorrek!

ALLER (*Ezpainetako ardo ttanttak besoarekin lehortuz*).

Hara, ba, gabeako ekaitza dela itsasotik eta ardiyakin,erne ibiltzeko esan du Marinazkanek.

JOXE

Oixe biar genun oañ, ekaitza ta zikiña, baniak oantxe borda.

ALLER

Bai ta ni beste artzai baten billa, ayo!

JOXE

Ayo, zurruterua, ayo!

OIHALA ZABALDU

## I. ZATIA

IRATXOz jantzitako pertsonaia bat ageri da agertokiaren ertzean eserita, jendeari begira, burua telebista itxurako kutxatxo baten barruan du sartua eta bi antenatxo ageri dira honen gainean. Zoro irribarrez dio:

### IRATXOA

Ikusi duzue zein zen Marinazkane zintzoa eta honen laguntzaile jatorren lana, benetan eskertzekoa, ezta? Urte batean, ordea, Jaizkibelen ez zen ekaitzik izan, urte lasaia izan zen, uzta onak, abereak gizen-gizen eta lezoarrak pozik. Baina esker txarreko lezoarrok, Marinazkanek urte hartan mesederik egin ez zielako ez zioten urteroko saria eman, Marinazkane gaixoak ez al zuen jateko eskubiderik? Lezoar zitalok!

IRATXOaren gibelean ARTZAI TALDE BAT berriketan ari da, hasieran zurrumuruak soilik entzuten ditugun arren haien elkarrizketa geroz eta ozenago entzun dezakegu. IRATXOA isildu da eta haien ondoan eseri. ARTZAIek ez dute ikusten. Elkarrizketa entzun dezakegu. Hiru ARTZAIAK borobilean eserita daude, bi enbor baten gainean eta hirugarrena belarretan alboz etzanda, beste biek nola jaten duten begira. Gazta eta zahatoa batetik bestera dabilta eta ARTZAIAK zein baino zein gogotsuago ari dira jaten.

### I ARTZAIA

Hau bai gazta!!

### II ARTZAIA

Bai, itten jakin biar, gure amunazanak bazekin bai gazta itten!

### III ARTZAIA

Halare (zahatotik zurrut eginaz), halare gutxitan izan dugu holako neguik, ain lasaya, ardiyak gizen-gizen inda dozte, esnia, berriz, gozo gozua.

### I ARTZAIA

Bai, arrazoizu, gure txian (gaztari hortzaka) ezta beñez oinbeste esne izan, oi pilla!

### II ARTZAIA

Urte ona izan da ta jendia umore onian do, denak txortan jotzeko amorratzen (gerrialdea atzera eta aurrera mugituz); datorren neguan izango dira komeyak, aurrak jayotzian ta etxian ze janik ez.

### III ARTZAIA

Gorde inbiar, ze?, oñ dena jan ta geoko batez, oi tontuan lana duk!

### II ARTZAIA

Ikusiko (barrezka) oñ gerripiak astindu, hurrengo neguan oztukottuk batzonbatzuna, bai.

III ARTZAIA. (ARTZAIAen gibelean ALLERren burua agertu da haitz baten atzean; ARTZAIEK diotena ezkutuan entzuten ari da).

Aurten bintzak Marinazkanei patzen lanik ez, eztuk ekaitzik izan, ola datorren neguako gordetzeko geyo.

II ARTZAIA

Bai arrazoizu, ondo esana (Zahatoari zurrut eginaz).

I ARTZAIA

Nik bintzak aurten iñauteritan astindu biarttut batonbaten ankartiak, ta utziezkeo baita garizumane!

ARTZAIAen eztabaida alai geroz eta gutxiago entzuten da eta ALLERrek ixil-ixilik burua gode eta alde egin du bertatik inor konturatu baino lehen. Gaua da jada.

OIHALA ZABALDU

## 2. ZATIA

### I

Goiza, egunsentia, bizitza berriro esnatu da gau ilunaren ostean, txoriak txirrika-mirrika nonahi, itsasotik datorren kresal usaia, ihintza belar gainean; apurka-apurka desagertuz doan ganduak paregabeko eguna izango dela iragartzen du emeki emeki desegiten den bitartean.

MARINAZKANE esnatu da, goizero bezala bere borda zaharretik atera eta ohantzean utzi ditu ZIRIKUAK, lagun lehialak; bordaren atarian, intxaurren azpian ALLER eta SATS elkar besarkatuz lotan daude; MARINAZKANEk, goizero ohi duenez, sudurzuloetan pilatu zaion muki mordo arnastu du, gordokada dihoakio ezta rraino. Hori mordo! Indarrez jaurtiki du karkaxa, ugari eta lodia. Karkaxaren gora-behera zaratsiak ALLER eta SATS esnatu ditu. Bezperan egindako saioak arrasto nabarmenak utzi ditu haien aurpegietan. Nekez ireki ditzake begiak ALLERrek eta are nekezago mugitu baina badaki bezperan artzaiei entzundakoaren berri eman behar diola MARINAZKANERi. Bezperan ez zuen akelarrea bere unerik beroenean eten nahi izan, guztiak gogoz jardun ziren eta honelakoetan alferrik izaten da ezer esaten hastea.

ALLER

Aizan, Mari, bañat nik iri esan biarreko kontu bat, larria dun gero nik atzo entzundakua. (Loaren orratzak kentzen dituen bitartean tarteka aharrausi eginaz).

MARINAZKANE

Bota zak! Zer duk ain larriya?

ALLER

Larriya? Larriya biño larryagua! Halakoik, jakingo bazenu! (Larritasunez).

MARINAZKANE. (Hasarretzen hasia dago MARINAZKANE ALLER inguru-minguru dabilekako).

Tira, mutil, esan seittuan, ze krixto, ta bestela betiko mututu!!

ALLER

Ai! Ezta ez geo txantxetakua.

MARINAZKANE

Esango al duk?! Bestela ixo! (Ukabila jasoaz mehatxu gisara).

ALLER. (Larri)

Zer den? Ba aurten eztugula lezoarren sariyik jasoko urtero bezela, ekaitzik izan eztelako, oixe besteik ez.

MARINAZKANE

Egiya? (Haserre)

ALLER

Bai, oixe! Neonek atzo illuntzian aittua.

MARINAZKANE

Nazkaarri zikiñak, eskertzarrekuak, joko alttu inpernuko tximistak!! Oyenak egin du, bai oixe!! (MARINAZKANE *ojuka ari den bitartean* ZIRIKUAK *bordaren atarian pilatuz joan dira sorginaren zaratak esnaturik*).

MUNTTAR

Mendekua Mari, mendekua!! (Atsegin aurpegia jarriaz).

MARINAZKANE

Mendekua bai biño guk gure partia jaso ondoren. Guri eztigute aurria artuko, ez oixe! Hara, ondo aittu ze ingogun. Torri denak onea. (Zazpi ZIRIKUAK MARINAZKANERen inguruan bildu dira eta ahotsaren ozentasuna apalduz MARINAZKANEk dio). Gaur Ostegunzuri da, festa eguna Lezon, illuntzian Trapujale jetxiko da ta parranda eerra ingoute. Onezkeo artzayak perira jetxiyak izangoia ta eztia biarrarte etorriko, parranda inbiarkoute gabian. Orduan guek zor dizkiguten zazpi ardiyak ilko ttugu ta afari eerra in illuntzian. Geo ardi larru frexkuak soñian jarrita Lezoa jetxiko gea. Lezoarrak arrittu ingoia ta guk esangoguna da larruak mendiyen topatu ttugula ta trapujalek illtula ardiyak, krixto guztiyai esanbertzayo oi. (ZIRIKUAK *arreta bizi ari dira jarraitzen* MARINAZKANERen *ideia maltzuraren azalpena, nagusiaren esana egiten trebeak baitira*). Zuazte seittuan ardi billa, bakotxak bana ekarri ta ez etorri ardiyak gabe bueltan.

Zazpi ZIRIKUAK *agertokiaren leku ezberdiñetatik atera dira*. MARINAZKANE *bakarrik utzi dute*).

## OIHALA ZABALDU

### II

TRAPUJALE *kostaburuko haitz baten gainean eserita dago, bere begien aurrean ageri zaio Oarso bailara osoa, baserri, etxetxo eta badiako urak, bere izatearen bizilekua, txikia baino aberatsa. Aldameneko haitzean daogen KAIOA*rekin mintzo da.

KAIOA

Onezkeo izangozu Lezoa jexteko gogua, ezta? Gaur illuntzian, zu jextian, festa giro eerra izangoa.

TRAPUJALE

Bai neska, bañat gogua, aspaldiyan eñat lezotarrik topatu mendi bazterretan ta izangoute zer kontatua, baakin nolakuak dian oyek, beti baute kontunbat.

KAIOA

Bai, lezotarrak betiko lepotik burua. Biño, zuke naiko zu laun zarrak ikusi ta jolasian aitzia, berritsu utzak diala esaten aittu ta beti elkarrekin, Lezo ta Trapujale, Trapujale ta Lezo.

TRAPUJALE

Oixe ba! Emen bakotxak beria gorde biar, etxekua etxekuak zaindu ta gorde biar du. Lezon oñ arte bintzat goguan izan dute, oi aztutzen duten egunian guriak egin du, Trapujalenak ta Lezonak.

KAIOA

Gaña aurten pozik ibilikoya, naikua jana ta eana izangoute olako negua izanta.

TRAPUJALE

Bai, beñez biño umore obian ta gizenoguruna.

KAIOA

Bai, gose eerrak pasiak dia. Ni banua illundu biño len kaira, arrantzaliak etorri dia ta arrayik ttikinak putzuta botzen asteako an eon nai dut, urrengoarte. (KAIOAK, *hegoak zabaldu eta aurrera jauzi eginez haitza utzi du, zuzen-zuzen doa Lezoko kairantz*).

## OIHALA ZABALDU

### III

*Agertokian, lehengo paraje berean, bordaren aitzinean, bildu dira zazpi ZIRIKUAK eta MARINAZKANE. Ardiak jaten ari dira sutzar baten inguruan. Haien berriketaren zurrumurrua urrun entzuten da. IRATXOA, lehengoa, agertokiaren ertzean eserita dago eta ikusleei mintzo zaie.*

IRATXOA

Ai! Mari eta ziriku gajoak, ez dago eskubiderik egin dietena egiteko. Janaria ukatu. Marinazkane gaxoak bere lagunengosea arintzearen onartu du ardiak hiltzea, egia esan herrikoek gehiegi zituzten. Hori bai emakume zintzoa!

IRATXOA

Isildu egin da eta atzera begiratu du, nabarmenago entzuten da taldearen elkarrizketa.

TIÑEL

Au bai aragiya! (*Gogoz ekin dio iztar bati. Gainerakoek isilik diraute jan-edanean soinu guari eginaz*).



KAIOA

Bai, lezotarrak betiko lepotik burua. Biño, zuke naikozu laun zarrak ikusi ta jolasian aitzia, berritsu utzak diala esaten aittu ta beti elkarrekin, Lezo ta Trapujale, Trapujale ta Lezo.

TRAPUJALE

Oixe ba! Emen bakotxak beria gorde biar, etxekua etxekuak zaindu ta gorde biar du. Lezon oañ arte bintzat goguan izan dute, oi aztutzen duten egunian guriak egin du, Trapujalenak ta Lezonak.

KAIOA

Gaña aurten pozik ibilikoya, naikua jana ta eana izangoute olako negua izanta.

TRAPUJALE

Bai, beñez biño umore obian ta gizenoguruna.

KAIOA

Bai, gose eerrak pasiak dia. Ni banua illundu biño len kaira, arrantzaliak etorri dia ta arrayik ttikinak putzuta botzen asteako an eon nai dut, urrengoarte. (KAIOAK, *hegoak zabaldu eta aurrera jauzi eginez haitza utzi du, zuzen-zuzen doa Lezoko kairantz*).

## OIHALA ZABALDU

### III

*Agertokian, lehengo paraje berean, bordaren aitzinean, bildu dira zazpi ZIRIKUAK eta MARINAZKANE. Ardiak jaten ari dira sutzar baten inguruan. Haien berriketaren zurrumurrua urrun entzuten da. IRATXOA, lehengoa, agertokiaren ertzean eserita dago eta ikusleei mintzo zaie.*

IRATXOA

Ai! Mari eta ziriku gajoak, ez dago eskubiderik egin dietena egiteko. Janaria ukatu. Marinazkane gaxoak bere lagunengosea arintzearen onartu du ardiak hiltzea, egia esan herrikoek gehiegi zituzten. Hori bai emakume zintzoa!

IRATXOA

Isildu egin da eta atzera begiratu du, nabarmenago entzuten da taldearen elkarrizketa.

TINEL

Au bai aragiya! (*Gogoz ekin dio iztar bati. Gainerakoek isilik diraute jan-edanean soinu guari eginaz*).

Sartu da plazan GAZTE MULTZOA trapujalez jantziak direlarik gehienak, suziak eskuan, bidea zabaltzen diote poza ezkutatu ezinik datorren pertsonaiari, adabakiz egindako bere soineko zaharrean herri zaharraren izpiritua gordetzen duen TRAPUJALERI. Poza eta algara, saltoka eta irrintzika GAZTE MULTZOAREN alaitasunari zahar eta gazte bildu zaizkio. Hasi da festa, alaitasuna, egun gutxi batzutarako bada ere, nagusitu da gizaki hauen bihotz eta gorputzaz. TRAPUJALE jada udal txeko balkoian da, agur egiten die herrikoei, eta agur egiten diote herrikoek. Urte bete joan da azkena hori egin zuenetik, epea bete da.

Bazterren batean jotako trikiti eta pandero soinuak Lezoko Beheko Plazaren zokobazterrak betetzen ditu; haurrak, musikaren berriz, edandako guztiaren eragina disimulatu ezinik, zein hormaren kontra, zein laguna bizkarretik helduta, Irrintzia eta dantza nonahi. Pertsona talde baten eztabaida gainerakoena baino ozenago nabari da.

I LEZOARRA (*Gehiegitxo edandakoaren keinu eta ahotsez*)

Hemen zurruta indakuan bai, orduan bai indarra, denak hitz eta pitz, indarra mingañian!! Horrek eztik putzik baliyo!!

II LEZOARRA

Eonyai ixilik, erua!, ire alakua yazta, zurrutian ta bullaka, ire bestian modukua yaz. (*Hau ere sobera edanda*)

II LEZOARRA

E!!? (*Oraindik mozkorturik, alboko paretari eskerrak zutik*). Zer?! Nik potroik eztutela ustealduk? Halajañana ta itxasoia juteko potroik izan eztun batek esatiare!

II LEZOARRA

Ze esan nahi duk, ni i biño gutxiyo nazela?

I LEZOARRA

Bai jauna! Ta potroik balinbauk jartzak oñ ta emen itxurazko apustua! Ta bestela ixo!

III LEZOARRA (*Hau ere edanegia*)

Hori duk arrazoya Miel! Hau (*alboan daukan beste mozkorra*) ta ni juez!

IV LEZOARRA

Bai! Bai!

II LEZOARRA (*Apur batez gogoeta egin ondoren buruari hazka egiten dion bitartean*).

Bale! Apustu ingoit, bayetz ik biño lenuo lau botila sagardo ean, kilo bat babarrun gorri jan ta kai zarretik Sanjuango plazaño arraunian jun ta etorri.

I LEZOARRA

Oi duk arrazoya. Eguna ta ordua jartzik!

## V

*Hori esandakoan agertokian sartu dira MARINAZKANE eta zazpi ZIRIKUAK ardi larruak soinean dituztelarik, harro, harro jende artean. Herri guztia isildu da, baita musika ere, guztiak begira dituzte eta marmarka ari dira.*

### I LEZOARRA

Orra, or dia Jaxkibelko sorgiña ta be launtzailliak, auskalo nundik ateattuzten ardi larru frexkuoyek.

### II LEZOARRA

Lapurtuak, seguru, oyek eztute ardiyik ta aurten eztute sariyik izan.

### III LEZOARRA

Bai, lapurtuak izangoia!

### MUNTTAR (*Hauei mintzo zaie, harroki*)

Gezurra dena! Ardiyak trapujalek ilttu ta guk larruak jaso inttugu.

### ALLER

Bai, bai, Trapujale izan da ardiyak ilttuna.

### I LEZOARRA. (II LEZOARRAri)

Aittu altzu oi? Trapujalek il omenttu.

### II LEZOARRA (*Erantzunaz*)

Eztakitpa egiya den, auskalo!

### I LEZOARRA

Oyek esanbaute zeoze izangoa, ez uste Trapujale guztiz santua denik.

### SUMI (*Pozez zoratzen*)

Oi, oi da arrazoya, neonek ikusi nun ardiyak arrapatu ta iltzen. (*Lezoar multzo bat imintzio larriak eginez dabil, hasarrea nabari da haien keinuetan*).

### I LEZOARRA

Ai Trapujale, eerra indigu, gure neguko jakiya kendu bere otso gosia asetzeko.

### II LEZOARRA

Bai, emen zeoze inberra do, bestela urrengo batian auskalo zer kendukoigun!

### III LEZOARRA

Juiziyua inberda! juiziyua! Nun da jueza, Trapujalek jaso dezala merezitakua.

### HERRITAR MULTZOA

Bai!, bai!, oi!, oi!

OIHALA ZABALDU

## VI

*Beheko plaza hutsik dago, gau iluna, gau beltza da, farolen argipean TRAPUJALEren aurka jardun direnak eta bizpahiru lagun gehiago besterik ez da gelditzen plazan. TRAPUJALE agertokiko bazter batean dago ixil ixilik esaten duten guztia entzuten.*

I LEZOARRA

Ai nazkaarriya, eerra sartu diguna Trapujalek!

II LEZOARRA

Bai, bakizu, olako tunantiakin ezta gauza onik izaten.

I GAZTEA

Zuek nola krixto dakizute Trapujalek indula oi, e? Sorgiñak esandulako?

I LEZOARRA

Bai, jakiña! Eztuzu usteko ba sorgiña gezurretan aidenik, ezta?

I GAZTEA

Ta zeatik ez?

II GAZTEA

Oi, oi, zeatik ez?

II LEZOARRA

Jaxkibelgo sorgiñak eztigu beñe kalteik in, mesediak bai hamaika! Trapujalek, berriz, eztu parranda besteik itten.

I GAZTEA

Biño zuk ikusialtzu ardiyak iltzen? Ez, noski! Orduan ixo!

I LEZOARRA

Aizak, sorgiñak indar aundiak dizkik, orrek eztik gezurrik esaten ta ezintzayo gezurrik esan; kontuz orduan be izena zikintziakin.

I GAZTEA

Zikindu? Beñe izen garbiyik izan al du "Marinazkanek"? Ipurdizikiñ orrek!

II LEZOARRA

Erne geo esandakuakin bestela ire suta jungoyaz Trapujalekin batea!

II GAZTEA

Suta, zuek bai jungo zeatela, ze krixto! Zuek beti nausiyen alde! Txoruak!

I LEZOARRA (*Paparretik helduz*)

Erne geo hitz oyekin!

## I GAZTEA

Erne! Gu ezkeo ikuttu, e?!! (Gira bira batzuren ondoren bi MUTILAK taldetik berezi dira eta agertokiko alde batetik joan dira marmarka. Beste TALDEAK gauza bera egin du baina irripar harro bat ezpainetan dutela. TRAPUJALE bakarrik dago agertokian).

## VII

*Noraezean dabil TRAPUJALE plazan batera eta bestera, besoak ipurdi gainean gurtzaturik, burumakur. Bere baitan dio:*

TRAPUJALE:

Ai!, hau zoritxarra neria, beñe kalteik iñez ta oañ olakuak aittu biarra. Ai! (Oso atsekabaturik). Alperrik da ni errugabia izatia, jendiak ezta ezer ulertu nai, ai! (Hasperen). Urtero etorri poza ta alaitasuna ekartzea iñauteritan, beti umore onian ta launtzeko prest da halare alperrik. Esker txarreko jendia da gero au, begiyan aurrian ageri dena ikusi nai ez ta eozin arrotzek esandako gezurrik aundinare siñisteko prestu begiyakin ikusi balute bezela. Jendia bai txorua. Ta oañ nik paatu biar besteen kaltia, ta nola ikustazi jende onei ni zintzua nazela ta sorgiña gezurretan aidela. Alperrik da, guztiz siñistuta daude, nayo dute auzokoaren zakurra etxeko anaya baño. Kakazarra! Ene ba! Bai trixtia dela etxeko anaya baztertu ta auzuan lagun billa aitzia kosta ala kosta. Biar auskalo ze ingouten ta nik ezer itteik ez, ze ingout ba! Alperrik da ezer esatia, emen ezta iñork ezer aittu nai, ai!

*TRAPUJALE isildu da eta bueltaka dabil plazan. Bazter batean TRAPUJALEk esaten zuen guztia entzuten aritu da IRATXOA. Honela diotso ikuslegoari:*

IRATXOA

Hau da hau! Ikusten, badaki alferrik dela jendeari errugabea dela sinistarazten aritzea, horregatik dago etsita. Bai, Trapujalek bere gaiztakeria guztiak ordaindu beharño ditu, ez dago errukirik hau bezalakoentzat. Marinazkanek esan badu Trapujale dela erruduna hala izango da, Marinazkanek beti asmatzen du. Ikusi duzue gainera jende gehiena bere alde duela sinisgogor bat edo beste ezik. Hori da frogarik onena. Bihar, Trapujale epaitzen dutenean argi geratuko da erruduna dela eta merezi duen zigorra jasoko du, bai horixe!

OIHALA ZABALDU

### 3. ZATIA

#### I

*Eguerdia da, TRAPUJALEren epaiketa hastera doa. Beheko Plazan, udaletxearen aurrean JENDE ugari bildu da, erdian EPAILEAren mahaia eta aulkia, mahaiaren ezker eta eskubi aldean JENDEA, marmarka ari dira multzo txikitik bildurik. EPAILEA sartu da agertokian eta honen atzetik UDALTZAINAK trapujale dakar grilu eta katez loturik. JENDEAren marmarrak isildu dira. TRAPUJALE mahaiaren ezkerreko aldean jartzean EPAILEAk bere tokia hartu du. Mailuaz mahaia jo eta dio:*

EPAILEA

Jaun andreok, epaiketa hasi da, zaudete isilik legearen izenean!

*(Telebista burutzat duen IRATXOA agertokian sartu da eta saltoka-saltoka EPAILEAren mahaiaren gainean eseri da. Irripar alaia nabari zaio ezpainetan).*

EPAILEA

Honoko hau da zure aurka egindako salaketa: (TRAPUJALEri begira). Inoren bai-menik gabe zureak etziren zazpi ardi lapurtu, hil eta jan izana ostegunzuri egunez Lezora jeitxi aurretik.

IRATXOA (EPAILEAri)

Hori, hori, errukirik ez gaiztagin hauekin.

EPAILEA

Aller, Sumi, Sats, Tiñel, Munttar, Ixku eta Let zirikuak izan omen ziren lekuko. Datozela hona lekuko gisa. (Zazpi ZIRIKUAK mahaiaren eskubi aldera agertu dira harro-harro).

EPAILEA

Zuek zer ikusi zenuten?

MUNTTAR

Munttarko zelayian ardiak il, larrutu ta jaten ikusi genun atzo arratsalde. Bai jauna, guk zazpiyok.

ALLER

Hori, hori, zazpiyak jantzittun nazkaarriyorrek.

SUMI

Bai, baita sagardo pillerra eane!

IRATXOA (EPAILEAri)

Aditzen al duzu, halakorik ezin da zigorrik gabe utzi, ez horixe!

LET

Bai, ta jan da geo dantzaka ta saltoka Lezoa jetxi zen. Beak aldeindakuan artu genittun guek ardi larruak eta errira ekarri zuek ikusteko.

## MUNTTAR

Abek dia probaik onenak (Ardi larrua eskutan hartu eta herriari erakutsiaz).

## IRATXOA (*Zutik jarri da mahaiaren gainean eta herriari diotso*):

Besterik entzun behar al dugu? Ez al da aski honek esan duenarekin? Inon ba al da horrelako gaiztakeria bat zigorrik gogorrenaz konponduko ez lukeen epailerik, e?

## EPAILEA

Ba al da hemen besterik esan nahi duen inor?

## I GAZTEA (*Ikuslegoaren artetik jeikiaz*)

Bai! nik zeoze esan nahi dut! (Urduri, haserre). Ez dago eskubideik, iñolako probaik gabe zigortu naizute Trapu, zeatik? Oyek esan dutelako? Ta gezurretan ai baldin baia? Ta ardiyak beak il ta beak janbattuzte? Orduan zer?

## IRATXOA (EPAILEAri)

Gezur zikina dena, ez egin jaramonik!

## II GAZTEA (*Agertokiko herritarren artetik erdira aterata*)

Bai ta gañea Trapu beti izan da gue launa, urtero etortzentaigu poza ta alaitasuna ekartzea, dittun guztiyak ematen dizkigu ordainetan ezer jasobe, oyek, berriz (*hatzaz ZIRIKUAK adieraziz*), ezer gutxi itten dute gue alde ta beti sari baten trukian, oyekin fiatu ber al dugu? Nun ttugu begiyak ta burua?

## IRATXOA

Hasi da gaiztagin hori zuritzen, bera ere ez ote da errudun, edo laguntzaile, e?

## (*Jendartetik eta ikusle artetik*):

Trapujale errugabia da! Zirikuak gezurtiyak! Marinazkane gezurtiya! Trapujale askatu!

## IRATXOA. (EPAILEAri)

Epaileak ezin die horiei jaramonik egin, argi dago erruduna zein den, lekukoak eta frogak daude, zigortu Trapujale, zigortu!

## ZIRIKUAK ETA ZENBAIT HERRITAR

Zigortu Trapujale! Zigortu!

## BESTE BATZUK

Gezurti zikiñak! Sugegorri alakuak! Trapujale errugabe!

## EPAILEA (*Mailuaz jo du mahaia isiltasuna eskatuz*)

Isiltasuna, jaun andreok, isiltasuna legearen izenean! (Isildu dira) Trapujale entzun dituzu zure aurka esan direnak, ba al duzu zure buruaren alde ezer esatekorik?

TRAPUJALE. (*Isilik, geroxeago negar zotinka*)

Ez!

## EPAILEA

Hori horrela bada eta salaketak onartzen dituzenez hau da jasoko duzun zigorra: datorren asteartean, asteartebeltz, griluz loturik herriko kaleetan barrena herio bidaian eramango zaitugu jendearen ikusgarri, ondoren lepoa moztuko zaizu eta zure gorputza surtan da erreko. (*Txistu eta haserre oihuak jendeartetik*).

(*Herriko gazte bat jendeartetik agertokira igo eta honoko bertsoak abestu ditu*)

Bertso gogorrak jartzera nua  
ezten arren gustokua  
nolabatte esan biarra do  
gaur Lezon entzundakua  
tartian juez, sorgiña eta  
gure Trapu gizajua  
surtara bota nai digutela  
errurikan gabekua.

Juezaren argitasuna dugu  
itxutzeko modukua  
gezurrak sorgin bati aittuta  
era battez xiñixtua  
gizon onetaz gaur besterikan  
esatera ni ez nua  
egunen batez probako al du  
inpernuan zai dun sua.

Marinazkane sorgiña eta  
laguntzen zazpi ziriko  
diruzaleak, mozkor galantak  
beti nori zer kenduko  
iñoiz ikusi al dittuzute  
herriari laguntzeko  
zuek eztakit biño nik beintzat  
eztittut bate gustoko.

Trapujalez zer esan ugari,  
esan beharrik eztago  
Lezoko sua, aizia, ura  
biltzen dulakuan nago  
Trapu gabe ihauterik Lezon  
berriro ezta izango,  
alakorikan iltzia baño  
neu iltzia nik riayago.

## HERRITARRAK (*Txaloka*)

Trapujale errugabe! Trapujale errugabe!

OIHALA ZABALDU



## II

Asteartebeltz ilunabarra, herio bidaia hastera doa, udaletxearen aurrean JENDE ugari bildu da. Haien artean nabari dira MARINAZKANE, ZIRIKUAK, IRATXOA, EPAILEA, UDALTZAINA eta griluz loturiko TRAPUJALE. Herio bidaia hastea, ATABALARIA doa aurretik, atzerago EPAILEA, eta honen ondoan IRATXOA. Atzetik ZIRIKUAK eta herri osoa. Herriko kale nagusienetan barrena ibili dira, bitartean JENDEA txistuka.

Agertokira igo dira guztiak, ezker-eskubi HERRITARRAK daude, erdian TRAPUJALE UDALTZAINA eta MUNTAR, atzean EPAILEA eta IRATXOA. MUNTARrek igitai zorrotz bat darama esku artean. TRAPUJALeri hurbildu zaio eta honek burua makurtu du, MUNTARrek igitai ahalik eta goren jaso eta kolpe bakarrez moztu dio burua, zast! Burua lurrera jausi zaio. (HERRITARren izu oihuak eta garraisiak) -Zakur zikiñak! (HERRITAR batek)- MUNTAR, korrika, burua zaku batean sartu eta udaletxeko balkoira igo da herri guztiak ikus dezan bere ekintza gogoangarria. Balkoian dagoen bitartean IRATXOA, ZIRIKUAK eta HERRITAR gutxi batzuk txaloka ari dira. Gainerakoak, txistuka eta oihuka ukabilak mehatxu moduan jasoaz (-Zakur ziñikak!-) Bitartean ZIRIKUAK subanbada prestatzen hasi dira, MUNTAR balkoitik jeitsi da, saltoka, zakua, TRAPUJALren burua gordetzen duen zakua, surtara jaurtiki du. Zazpi ZIRIKUAK suaren inguruan dantzan dabilta. HERRIA isilik eta lur jota dago. Halako batean eta zarata guztien gaintetik TRAPUJALE hilberriaren ahotsa ozen eta garbi entzun da. HERRITARREK buruak jaso dituzte irribarrez, ZIRIKUEK harriduraz begiratzen dute inguruan, jada utziak dituzte dantza eta algarak. Honela dio TRAPUJALeren ahotsak:

“Lezotar mattiak, trapujaliak, ez geyo negarrik in. Lepua moztu diate baño ni oandik bizi naz. Ez aztu lezotarren izpiritua nazela, iñork iñoiz ilko eztuen izpiritua, zuek goguan baldin banazute bintzat. Alaitu beaz zuen aurpegiak, abestu eta dantzatu, iñauteritako azken egun ontan, ni datorren urtian itzuliko bainaz. Hor plazan duzuten nere gorputzetik txoixua ta ardua ateako dia, jan ta ean nai aña badota. Agur trapujaliok, datorren urtearte, ondo izan!”

TRAPUJALeren hitz hauekin HERRITARren aurpegiak alaitu egin dira, piztu, ZIRIKU eta IRATXOarena, berriz, goibeldu, konturatu batira alferrik dela gezurrez herriaren izpiritua hiltzen saiatzea hau herriaren bihotzean sendo erroturik bizi baldin bada. BEGO.

KITTO